Informa el concejal Sr. Dufur que entiende que como tienen todos los ayuntamientos de la zona el vehículo municipal debe estar identificado con el escudo municipal, ofreciéndose para ello el concejal Sr. Gaztelu, estando todos los corporativos de acuerdo con la medida tomada.

Listado de correos electrónicos

Informa el concejal Sr. Karrika Narbaitz que para situaciones como la del corte de agua de hoy se debería tener una relación de correos electrónicos de los vecinos para comunicar los bandos por medios telemáticos. Entiende que esto no es contrario al reparto de bandos en papel sino que es complementario y da mayor rapidez a la información para el que de su correo electrónico.

La Corporación se da por enterada.

9.- RUEGOS Y PREGUNTAS

No se formulan.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 18,30 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko udaletxean, 2016ko urriaren 10ean, arratsaldeko 17:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratu ziren zinegotziak: Iñaki Xabier Yoller Urdiruz, Pedro Juan Karrika Narbaitz, Mikel Gaztelu Alonso eta Francisco Javier Dufur Oharriz,

bilkuraburu alkatea, Luis de Potestad Tellechea, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

Aneva Cilveti Loperena eta Arkaitz Karrika Iribarren zinegotziek etortzerik ez dutela jakinarazi dute.

1.- 2016KO EKAINAREN 28KO BILKURAREN AKTAREN ONESPENA

Udalbatzak erabaki du aho batez 2016ko ekainaren 28an egindako osoko bilkuraren akta onartzea.

2.- 2016ko EKAINAREN 24tik URRIAREN 6a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, de Potestad jnk., 2016ko ekainaren 24tik urriaren 6ra eman dituen ebazpenen gaineko informazioa eman du, horiek bilkurako espedientean daude eta udalkide guztiak jakitun dira.

3.- AURIZKO UDALAK SUSTATU DUEN ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA XEHAKATUAREN BEHIN BETIKO ONESPENA

Aurizko Udal Planaren Arau Subsidiarioetako 128 eta 138 artikuluen aldaketaren hasierako onespena, 2016ko ekainaren 28 bilkuran onetsia, 2016ko abuztuaren 10eko 154 zk. duen NAOn argitaratu zen, eta ezarritako epean alegaziorik aurkeztu ez denez, aho batez erabaki da Hirigintza Arautegiaren 128 eta 138 artikuluen aldaketa xehakatu onartzea eta haien testu osoa argitaratzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 74. artikuluekin zerikusia duen 79. artikulua xedatutakoa, martxoaren 5eko 5/2015 Foru Legeak aldatua, kontuan hartuz: Udal Planaren Hirigintza Arautegiaren 128 art. (Lurzati hertsiketak):

“Lurzatiak harriz, adreilu luzituaz, zur betez, forjaz edo landare-hesiz hertsiko dira eta 150 cmko altuera izanen dute gehienez ere; dena den harriz, zurez edo adreilu luzituz egindakoek gehienez ere 120 cm altuera izanen dute eta 150 cm raino forjaz edo landare-hesiz osatu ahalko dira. Burdin hesiek ez dute goiko aldean puntadunak izan behar.

Udal Planaren Hirigintza Arautegiaren 138.4 art. (Balkoi-begiratoki hertsiketa):

“Begiratoki kristaldunak egin ahal dira beti ere kanpoko hertsiketa beti ere arotzeriaz egin baldin bada eta alde bakoitzeko hertsiketaren azaleraren %80 baino gehiago beirazkoa baldin bada. Beirak termikoki isolatzailea izan beharko du”.

4.- 5 POLIGONOKO 277 LURZATIA SALTZEKO BALDINTZA PLEGUAREN ONESPENA

Alkateak, de Potestad jnk., hitza hartu du eta jakinarazi du 5 poligonoko 277 lurzattia Udalaritza itzuli zaionez, enkantera atera behar dela hartutako erabakiak betetzeko eta alde aurretik baldintza plegua onartuz. Modu berean, Nasuvinsako teknikariak, Ana Larequik, 5 poligonoko 277 lurzatiaren balorazio ekonomikoaz egin duen txostenaz informazioa eman du; horren arabera, hondar-balioa kontuan hartuta metro koadroko prezioa 19,54 eurokoa da eta balorazio ponentzia gaurkotua kontuan hartuta metro koadroko prezioa 12.56 eurokoa da Modu berean jakinarazi du informazio hori Martín

Suarezi eman ziola eta berak eskatu diola Udalari lurzatia enkantera ateratzea eta oinarrizko prezioa 40.000,00 euro izatea.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

1.- 5 poligonoko 277 lurzatia enkantean ateratzea eta oinarrizko prezioa 40.000,00 eurokoa izatea.

2.- Alkateak, de Potestad jnk., proposatu duen baldintza plegua onartzea.

3º.- Honako tramiteak dakarren gastuak Suarez jaunak ordaintzea, hartutako erabakien arabera.

4º.- Kontratazio mahaia honakoez osatua egonen dela: alkatea, de Potestad jn., eta Karrika Narbaitz eta Yoller Urdiruz. Zinegotziak.

5.- AUÑAMENDI MANKOMUNITATEAREKIKO HITZARMEN ZUZENAREN BERRESPENA ETA AURREKONTUKO ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA

Aho batez erabaki da:

1.- 1.- Udalarena den higiezina hitzarmen zuzendaren bidez Auñamendi Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateari alokatzeko baldintza administratiboen plegua berrestea, hona hemen:

1. KLAUSULA Xedea eta Sailkapena

Kontratu honen xedea da hitzarmen zuzenaren bidez Aurizko Kultur Etxeko lehenengo solairuko zati bat, beharrezkoa dena (gutxi gora behera 60m²), Udal katastroko 5 poligonoa, 242 lurzatia, Orreaga karrika 31, Auñamendi Gizarte Zerbitzuetako mankomunitateko egoitza administratiboan bertan jartzeko, hots, hiru bulego, bilera gela eta artxiboa.

| | | | | | |
|-----------------------------|-----------------|-----------------|-----------------|----------------|--------------------------------|
| <i>Ondasun higiezina</i> | <i>UNITATEA</i> | <i>Solairua</i> | <i>Atea</i> | <i>Helmuga</i> | <i>Azalera (m²)</i> |
| <i>310000000001617547ZD</i> | <i>9</i> | <i>1º</i> | <i>BILTEGIA</i> | <i>143,00</i> | |

Kontratua pribatu izaera dauka, Kontratu Publikoen ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 31.3 artikulua arabera.

Salbuespenez, beheko solairuko gela bat erabiltzeko baimena emanen da, lehenengo solairura igo ezin diren pertsoneri harreta eman behar zaien kasuetan hain zuzen ere.

2. KLAUSULA Prozedura:

Prozedura hitzarmen zuzena izanen da, Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 127 artikuluan eta Nafarroako Toki entitateen Ondasunen Arautegia onesten duen urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 114 artikuluan aurreikusitakoaren arabera; hori guztia Auñamendi Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearen administrazio egoitza moduan bulego horiek erabiltzeko baita, Auñamendi eskualdeko Gizarte Zerbitzuak kudeatzeko asmoz, 127. artikulua 3 zatian aurreikusita baitago, eskualdeko gizarte zerbitzuak kudeatzeko eskumena duen Toki Entitate bakarra baita eta hura osatzen duten Udal guztiek eskumen hori eman baitiote eta hori interes publikoa daukala frogatua baitago.

3. KLAUSULA Alokaturaren hilabeteko prezioa.

Hilabeteko prezioa EHUN ETA HOGEI euro izanen da (120,00 €). Ordainketa hilabetero egingen da eta hilabete bakoitza bukatu aurretik egingen da Aurizko Udalak Caixabanken edo Rural Kutxan dituen kontu korrante batean eginez.

4. KLAUSULA Duración del Contrato

Alokairu kontratuak 5 urte iraunen du. Hura bukatzean hitzarmen zuzen berria eskatu ahalko da, interes orokorreko arrazoiak direla kausa.

Aipatutako epea bukatuta, instalazioak automatikoki eta kargarik gabe Udalari bueltatuko zaizkio, beti ere egoera onean, eta epea bukatu baino hiru hilabete lehenago Udalak instalazioak ikuskatuko ditu, eta aurreikusitako baldintzetan mantentzeko beharrezkoak diren konponketa lanak egingen dira. Egin beharreko konponketa lanak alokairudunaren kargura izanen dira.

Modu berean, kontratua sinatzean emandako material inbentariatua automatikoki itzuliko da. Mankomunitatea legez desagertuko balitz edo egoitzaz aldatuz gero, lokalak Udalari itzuliko zaizkio.

Udalak, ondasun horiek alokatuak dauden bitartean mantenimenduak haien etorkizuneko erabilera kaltetu dezakeela uste baldin badu, itzultzea erabaki dezake. Horrelakorik gertatuz gero, bulegoak ezartzeagatik Mankomunitateak ordaindutakoa itzuliko dio, ez berriz Mankomunitateak ondoren egindako hobekuntzei dagokiena.

5. KLAUSULA

Egoitzaren elektrizitate gastuak Auñamendi Mankomunitatearen kontu izanen dira eta kontagailu berezia izanen du, eta haren kontu izanen dira baita internet, telefono, hondakinen bilketa eta jarduerak sor ditzakeen antzeko beste gastuak, eta edukiaren eta erantzukizun zibileko aseguruaren polizak egoitza berriari egokituko zaizkio, instalazioak erabiltzeagatik sor daitezkeen kalteei erantzun ahal izateko. Egoitzak ez du eraikineko berokuntza sistema bera erabiliko ez baitago zirkuitu bereizirik ezta kontagailurik ere. Ura eta edukiaren aseguru poliza errentatzailearen kontu izanen dira, higiezinaren jabe den neurrian.

6. KLAUSULA

Lokalak Auñamendi Gizarte Zerbitzuaren beharretara egokitzeko obrak Mankomunitatearen kargura izanen dira eta Aurizko Udalaren onespena edo baimena beharrezkoa izanen da.

Aurizko Udalak honakoak jarriko ditu Mankomunitatearen eskura:

-Zerbizu Anitzetako langileak egoitzaren aldaketa egiteko, beti ere 2016ko uztailean eginez gero.

-Langileek bulegoetan sartu ahal izateko segurtasun sarrailak jartzea eta dagozkien giltzen programazioa.

-Bulegoko altzariak jarri eta uztea.

-Bulegoak, artxiboa eta bilera gelen paretak jartzeko materiala.

7. KLAUSULA Prozedura:

Prozedura hitzarmen zuzena izanen da, Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 127 artikuluan eta Nafarroako Toki entitateen Ondasunen Arautegia onesten duen urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 114 artikuluan aurreikusitakoaren arabera; hori guztia Auñamendi Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearen administrazio egoitza moduan bulego horiek erabiltzeko baita, Auñamendi eskualdeko Gizarte Zerbitzuak kudeatzeko asmoz, 127. artikulua 3 zatian aurreikusita baitago, eskualdeko gizarte zerbitzuak kudeatzeko eskumena duen Toki Entitate bakarra baita eta hura osatzen duten Udal guztiek eskumen hori eman baitiote eta hori interes publikoa daukala frogatua baitago.

8. KLAUSULA Kontratuaren Lege-araubidea

Kontratuak izaera pribatua dauka, Kontratu Publikoen ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 31.3 artikulua araberan. Haren prestaketa eta adjudikazioa cláusula administratiboen baldintza plegu honen araberan egiten da eta, aurreikusi ez denari dagokionez, administrazio arau zehatzak aplikatuko dira, edo bestela KPFL, TAFL eta horiekin bat datozenak. Haien ordean administrazio zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horrelakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak. Halaber, eta interes publikoko zioengatik, egindako kontratuak aldatzea eta horiek suntsiaraztea erabakitzen ahalko du, Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko Foru Legean jasotako mugen barnean eta baldintza zein ondorioekin bat.

2.- Alkateari, de Potestad j., hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

3º.- Aurizko Kultur Etxeko lehenengo solairuan beharrezkoa zen tokia (gutxi gora behera 60m²) egokitzeko egin behar izan diren lanei aurre egiteko aurrekontu sail nahikorik ez zegoenez, 13.059,84 euroko aurrekontuko aldaketa onetsi da, diruzaintzaren soberakinaren kontura.

Hori guztia Nafarroako Toki Ogasuneko 2/1995 Foru Legearen 212. eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren araberan egingo da.

Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 276 artikuluaekin bat eginez espedientearen jendaurrean egonen da 15 lan eguneko epean udal idazkaritzan, nahi duen orok hura aztertu eta egokiak deritzon erreklamazioak egin ahal izateko. Erreklamaziorik aurkeztu ezean, expediente hau behin betiko onetsitaz emango da eta hura argitaratzeko izapidea bukatutzat.

6.- BILTEGIENTZAKO ETA ARTISAU-INDUSTRIA TXIKIENTZAKO EREMUAN LURZATIEN ADJUDIKAZIOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETARI EGINDAKO ALEGAZIOEN ERANTZUNA ETA BEHIN-BETIKO ONESPENA.

Alkateak, de Potestad jnk. hitza hartu du eta esan du biltegiertzako eta artisau-industria txikientzako eremuan lurzatiaren adjudikazioa arautzen duen Ordenantzaren aldaketa hasiera batean onesten duen erabakia NAOn argitaratu zela eta alegazioak aurkezteko epean Jose Irigaray Gilek honakoak aurkeztu dituela:

1.- AURREKARIAK:

Industrialdea egiteko arrazoia industria txikiei, eskulangileei eta antzeko jardueri, biltegiak adibidez, irtenbidea ematea izan zen, herrian zarata, trafikoa, usain txarrak, eta abar sahiesteko eta gainera leku gehiago eskaini ahal izateko, zaila baita herriko eraikinen beheko solairuetan horrelakoak edukitzea.

Industrialdea txikia da eta produktuak egin eta garatzeko industria-jarduera txikientzako egin zen.

Aurizko hiri-garapenak egoitza edo industria izaera izan dezake. Egoitzazko garapena dauden azpiegituretan oinarritu behar da, ezin da sakabanatu. Industria garapena tokiko jardueran oinarritu behar da, bertako sektoreen, abelzaintza, basogintza, gainbalioa handituz.

Udalak, horrelako eremua sortzean, bertako biztanlegoa lagundu eta finkatu nahi du, aberasteko inolako helbururik gabe. Hartara, ordenantzan artikulua batzuk gehitu ziren,

laugarrena kasu, non esaten baita lurzatiak ezin izanen direla "inter vivos" eskualdatu ezta alokatu ere 20 urteko epean

Tokiko garapena laguntzeko eta espekulazioa sahiestuz biztanlegoa finkatzeko, eskeritura publikoa egiten denetik 20 urteko epean lurzatiak ezingo direla "inter vivos" eskualdatu dioen cláusula mantendu beharko da, bai eta udalaren lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea ere.

Industrialdeko diseinuak hura handitu edo txikitzeo aukera eman zuen, etorkizuneko beharren arabera.

Jardueren ezaugarriek gutxieneko azpiegiturak egitea ahalmenu zuten, zuzkidura-eremurik gabe, argiteri publikorik gabe, euri uren bilketarik gabe, eta espaloiak egunez erabiltzeko egokituak.

2.- Hirugarren sektorearen garapena

Hirugarren sektorearen erabilera merkataritza izaera duten jarduerari dagokie (produktu eta zerbitzuen salmenta), bulego eta ostalaritzari.

Egungo eremua ez dago hirugarren sektoreko jarduerak hartzeko egokituak. Orokorrean industria eta hirugarren sektoreko erabilerak ez dira bateragarriak. Industrialde handi bati laguntza eman ahal dio jardueraren bat izan ezik, adibidez industria jarduera zabalik dagoen bitarteko ordutegia duen jatetxea, asteburuetan hertsia; industrialdeetan ez da hirugarren sektoreari dagozkion jarduerarik jartzea uzten, ezta egoitzazko erabilera dutenak ere.

Egungo industrialde txikian hirugarren sektoreko jardueraren bat sartzeak industrialde berria beharko luke, zarata, trafiko, usain, eta abarren arazoak sortu ahal baitira. Izan ere, indarrean dagoen Zarata Legeak kasu bakoitzean baimendutako soinu mailak aldatzen ditu eta industria eremuetan ez du horrenbeste trabarik jartzen. Baliteke egungo jarduerak neurriak hartu bhear izatea indarrean dagoen legea betetzeko.

Hirugarren sektoreko erabilera, egoitzazko jarduerarekin bateragarriagoa den heinean, horretan oinarritu behar da eta dauden hornidurez baliatu beharko litzateke (parkea, frontoia, etab)

Hirugarren sektoreak argiteri publikoa behar du, herrigunetik iristeko erraztasuna, espaloiak berritzea, euri urak biltzea, etab bai eta bideak garatzea, industrialdean zein inguruan, gehienbat Done Jakue Bidea handik pasatzen delako. Hurbilduko den jende kopurua bikoizten da eta jardueren ordutegia ere aldatzen da. Eta mantenimendua ere programatu behar da, gehienbat karriken garbiketari dagokionez.

Beste aldetik, ez da egia aurreko legegintzaldian lurzatiak adjudikatzeko arautegia gaurkotzeko erabakia hartu zenik, alkateak dioen moduan. Duela bi legegintzaldi izan zen, bizilagun batek hirugarren sektoreko jarduera baterako eskaera egin zuenean, eta proposamena geldiarazi zen eta 2011ko martxoaren 17ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez arrazoizko beste aukera bat proposatuz, egoitzazko eremuari atxikitako lekuan jartzea, baina bizilagun horrek ez zuen hori egin nahi izan. Erabakia erantsi da, 1. dokumentua.

Hortaz:

ESKATZEN DUT: *Aurizko udalari idazkia onartzea eta hartutako erabakia bertan behera uztea, herriko bizilagunentzako kaltegarria delakoan.*

Karrika Narbaitz zinegotziak hitza hartu du eta esan du azkeneko puntuan dioena ez dela egia, berak lurzattia itzuli nahi izan zuela proposatu ziotena egiteko eta ez zuten onartu, eta ez zutela berarekin berdin jokatu.

Alkateak, de Potestad jnk., hitza hartu du eta esan du alegazio horiek izaera politikoa dutela, hori baita bere aritzeko prozedura, eta nahiz eta ez jakin nola erantzun, idazki bat prestatu duela, hona hemen:

“Irigaray jnk. aurkeztu duena ez dakigu berraztertze errekurtsoa edo alegazioa den, Udal honek ordenantza aldatzeko egin duen proposamenari.

Berak dio Lurzatiak ezin izan direla "inter vivos" eskualdatu ezta alokatu ere 20 urteko epean dioen klausula bai eta Udalak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko duen eskubidea mantendu behar direla. Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea ez dago 2011ko uztailaren 22ko ordenantza jasoa, cláusula hori orain gehitu da espekulazioa sahiesteko, transmisio-epaia aldatu baita, jabeek onartu ahal duten edozein salmenta eskaintza Udalarari aurkeztu behar diotelako.

Ezin dena ukatu da egungo egoera ekonomikoa ikusita industrialdea garatzen lagundu dezaketen neurriak hartu behar direla, justifikatu ezin den gainbaliorik gerta ez dadin. Hau da, joan den legegintzaldian Irigaray jnk., gure taldearen laguntzaz, egoitzazko lurzati baten salmenta giza-arrazoiengatik onartu zuen moduan, orain aukera hori industrialdean proposatzen da beti ere herriko garapen ekonomikoari onura baldin badakarkio, egungo jabeek hasiera batean egindako inbertsioa berreskuratzeko.

Irigaray jnk. dio ez dela egia aurreko legegintzaldian lurzatiak adjudikatzeko arautegia gaurkotzeko erabakia hartu zenik, eta 2011ko martxoko osoko bilkuraren erabakiari egiten dio men, bai eta ordenantzaren onespenera ere. Ba, ez egia ez gezurra, Irigaray jnk. Alkateak esandakoa manipulatzeko duen lortu nahi duena justifikatzeko. De Potestad jnk. Esan zuen aurreko legegintzaldian garapena sustatuko duten jarduerak laguntzeko erabakia hartu zela eta horri men egiten zion erabakia zehazki aipatu zuen, hots, lurzati bat Artxua APRari alokatu izana bere eraikuntzako tresneria bertan biltzeko.

- Azken finean Irigaray jnk. Jarrera katastrofista erakutsi du industrialdeari dagokionean, zarata, trafikoa, usainak, eta antzeko arazoak aurreikusiz. Harrigarria da horrelako gaietaz aritzea azkeneko urteetan industrialdearekiko axolagabekeria erakutsi duenean, oso zikin baitago, festetan plater tiroa antolatzeke egokitu behar izan zen eremua frogatu den bezala.

Zerbitzuei dagokienez, gaur egun 4 lurzati daude salgai eta egungo egoerarekin bateragarriak dira. Dena den, Udalak hobekuntzak egiteko aukerak aztertu ditu, nahiz eta proiektua oraindik ez den aurkeztu ez baitago argi gauzatu ahalko den.

Horiek horrela, Udalbatzak erabaki du aho batez:

1.- Irigaray jnk. aurkeztu dituen alegazioak ez onartzea eta erabakiaren berri hari ematea.

2º.- Biltegien eta Eskulangintzako Industria txikien Eremuan Lurzatiaren Esleipena arautzen duen Ordenantzaren aldaketa behin betiko onartzea, hura bideratzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Nafarroako Toki Administrazioaren 6/90 Foru Legearen 325 artikuluan ezarritakoa betetzeko. Hona hemen:

2018ko ekainaren 28ko osoko bilkuran Aurizko Udalak biltegien eta eskulangintzako industria txikien eremuan lurzatiaren esleipen arautzen duen Ordenantza aldatzeko hasierako erabakia hartu zuen eta 2016ko abuztuaren 1eko 147. NAOren argitaratu zen; hari aurkeztutako alegazioei erantzuna eman ondoren, aho batez erabaki da honakoa onestea behin betiko:

Hasteko, Ordenantzaren oraingo izenburuari “BILTEGIEN ETA ESKULANGINTZAKO INDUSTRIA TXIKIEN EREMUAN LURZATIEN ESLEIPENA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA” honakoa erantsiko zaio “ETA HIRUGARREN MAILAKO ZERBITZUAK”, bulegoak, jarduera turistikoak, etab. jarri ahal izateko. Bigarren, ordenantzaren laugarren puntua erantsi eta aldatuko da, honakoa gehituz:

4. Lurzatiak “inter vivos” eskualdatuko ahalko dira, eskritura publikoa egin zenetik 20 urte pasatu ondoren. 20 urte baino lehen saldu badira, Udalak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea gordeko du.

Lurzatiak alokatu ahal dira eta jardueraz aldatzeko 6. artikulua dioenari men egin beharko zaio.

Lurzatiak oinordetzaz edo mortis causaz eskualdatu ahalko dira, jasotzailea aurreko paragrafoan ezarritako baldintzei subrogatuz.

17:30ean Dufur zinegotzia bilkuran sartu da.

7.- UDAL LANGILEEN EUSKALDUNTZE PLANGINTZA

Ikusirik Aurizko Udalaren langileak 2016/2017 ikasturtean euskalduntzeko plangintza, euskara teknikariak aurkeztua, eta hura prestatzeko langile bakoitzaren egoera kontuan hartu dela bai eta Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako langileak euskalduntzeko ordu konpentsazioak eta konpentsazio ekonomikoak ezartzen dituzten 195/1993 Foru Dekretua eta 1311/2010 Ebazpena. Ikusirik plangintza aurreikusitako aurrekontua matriculen kostuari dagokiola eta horietatik Udalak %50 ordainduko duela (156,00 € langile bakoitzeko), aho batez erabaki da:

- Aurizko Udalaren langileak euskalduntzeko 2016/2017 Plangintza bere osotasunean onartzea eta erabaki honen berri euskara teknikariari, Teresa Iribarren, ematea.

8.- BESTERIK

Alkateak, de Potestad jk., hitza hartu du eta honako informazioa eman du:

Ikastetxe publikoa berritzeko lanak

Alkateak, de Potestad jnk., hitza hartu du eta jakinarazi du ikastetxean gela batzuk egokitu direla gimnasioa eta jantokia jartzeko eta jantokian hirutik hamarrera igo dela bazkaltiarren kopurua; zerbitzua Garraldako eskolak emango duela, eta kopuruaren arabera inbertsioa justifikatua dago eta ongi egina ere.

Dufur zinegotziak galdetu du osasun ikuskapena gairitu duen eta falta dela jakiak kontserbatzeko hozkailua jartzea.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Mendicoaren hustubidea

Dufur zinegotziak jakinarazi du hustubide hori gaur garbitu dutela eta Mendicoak egiten dituen isurketen ondorioz zikintzen dela eta, hortaz, faktura berak ordaindu beharko duela. Eta gaineratu du gaur egin den konponketan brida bate karri behar izan dela Iruñetik, gordeta zeudenak Leachek erabili zituelako frantsaren etxea egin zuenean eta batzuk erosi beharko direla erreserban edukitzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Feriak

Alkateak, de Potestad jnk., jakinarazi du Garaitzeko Asi Elkarteak Artzai Eguna antolatu zuela eta Udalak merkatua antolatu zuela. Gaineratu du Eskulangintza Azoka hobetu dela gehienbat partehartzaileen harrerari dagokionean eta horrela baiatzatu dutela horietako askok.

Gaztelu zinegotziak jakinarazi du hurrengoetarako birsaltzaileak etor ez daitezen lan egingo dela eta horrek produktuen kalitatea hobetzea ekarriko duela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Udako ikastaroak.

Alkateak, de Potestad jnk., hitza hartu du eta jakiinarazi du Done Jakue Bideari buruzko udako ikastaroak antolatu zirela eta, nahiz eta jende gutxik parte hartu, hizlarie esan diotela kontent daudela emaitzekin, eta hurrengoetarako Lindus-2 proiektuaz baliatuko direla gaiak hegazti migrariei buruzkoak izan daitezen.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Aurizko App ofiziala

Alkateak, de Potestad jnk., jakinarazi du aplikazioa doan eskuratu ahal dela eta turistei begirako informazioa hobetuko dela.

Yoller zinegotziak galdetu du aplikazioa herri osotik erabil daitekeen, erromes asko galduta datozelako eta establezimenduak ez direlako informazio bulegoak, eta zerbitzuak seinalezatzeko aukerarik dagoen galdetu du.

Alkateak, de Potestad jnk., erantzun dio wifi antenak jarri direla kultur etxean eta udaletxean, eta beste bat jarriko dela Loizu Hotelean edo Burguete Hotelean, eta seinalizazioari dagokionez, aurreko legegintzaldian bere taldeak proiektu bat aurkeztu zuen eta hori berreskuratu daitekeela eta diru-laguntzen deialdi zenbaitera aurkeztu.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Bankuek kobratzen dituzten komisioak berrikustea

Alkateak, de Potestad jnk., jakinarazi du Caixako bulegoko arduradunarekin, Mikel Aranguren, bilerak egin dituela kobratzen dituzten komisioak jeisteko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Udal langileak jasandako irainen gaineko salaketa.

Alkateak, de Potestad jnk., jakinarazi du bera udaletxean zegoen unean, Ana Isabel Erneta administrariari telefonoz deitu ziotela irain larriak jasanez. Horrelakoak ezin direnez onartu Goardia Zibilaren koartelera joan ziren biak salaketa jartzera.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Toponimia-mugarriaren ebasketa

Karrika Narbaitz zinegotziak jakinarazi du bera eta Gaztelu zinegotzia toponimia-mugarriak jartzera joan zirenean horietako bat desagertu dela ohartu zirela, hasiera batean hamabost zeudelako, eta Goardia Zibilaren aurrean salaketa jartzea proposatu du.

Idazkariak hitza hartu du eta proposatu du aurreko udalbatzari edo Nattura enpresari galdetzea, egoera argitzeko, eta Yoller zinegotziak iritzi bera dauka.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Herriko hainbat eremuetako zikintasuna eta txukuntasun eza.

Gaztelu zinegotziak jakinarazi du neurri zorrotzak hartu behar direla herri inguruko hainbat eremuetako egoerei irtenbidea emateko, nekazal tresneria zarra eta zabor anitz dagoelako eta jabeen horiek kentzeko epe bat eman beharko litzaiekeela uste duela eta zola publikoa erabiltzeagatik tasa bat kobratzearen alde dagoela dio.

Modu berean jakinarazi du Ipoteako industrialdean Mendizar eraikuntza enpresak alokatua duen lur zatia egoera narrasean dagoela, obra-hondakinez bete eta garbitzea eskatu beharko litzaiekeela.

Landare hondakinenezko eremua toki ikusgarrian dagoela, handik urtean hirurogeita hamar mila erromes baino gehiago pasatzen direla eta oso itxura txarra ematen duela eta horri irtenbidea emateko Bidausi Mankomunitatea ari dela konpost egiteko proiektu bat lantzen.

Dufur zinegotziak dio Mendizarrek zabor guztia ekarri zuela Aurizberriko industrialdetik kentzea agindu zitzaizenean eta uste duela Udalarekin duen zorra ordainarazi behar zaiela eta idazkariak dio uste duela zorra ordaindua daukatela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Hertsiera automatikoa duten atakak.

Dufur zinegotziak dio abeltzain askok esan diotela Done Jakue Bideko ataka anitzetan zerbait egin behar dela, horrenbeste erromes pasatzen denez maiz irekita gelditzen baitira eta horiek herstekeo malgukiak jarri beharko lirakekeela modu automatikoan herstekeo.

Alkateak, de Potestad jnk. dio horrelako bat jarri beharko litzatekeela, ehiztariek arazo berdina dutelako eta Dufur zinegotziak horrekin ados ez dagoela dio, ehiztariek ibilgailutik jeitsi eta ataka hertsu behar baitute.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Herri-lurretan seinaleak jartzea

Alkateak, de Potestad jnk., dio berrik ibilera egin zuela GAN eta Mendicoarekin, azken hau Jauregiaroztegiko bazkalekuen adjudikazioduna baita, eta abereak solte daudela iragartzen duen seinaleak eta zakurrak solte eramatea debekatzen duten seinaleak jartzeko aukerak aztertu zituztela, eta Karrika Narbaitz zinegotziak dio Erronkarin horrelako seinaleak badaudela eta horien antzekoak egin daitezkeela eta Antsobiko igerilekuaren inguruan ere jartzea komeni dela dio.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Lindusko bazkalekuak

Dufur zinegotziak dio Linsuden Ehiztari Elkarteak sasi-garbiketa egin duela etab era ez dagoela horrekin ados, horrelako lanak edo azienda sartzeak basoaren birsorkuntzarako kaltegarriak baitira. Gainera uste du larrazkeneko bazkalekuak enkantean jarri beharko lirakekeela Udalarentzako diru-sarrera berria izango direlakoan.

Karrika zinegotziak dio azienda basoan bazkatzearen aldekoa dela, uste baitu bazkatzeak kalte baino onura gehiago dakarrela eta horren adibide egungo basoak direla eta horietan azienda beti bazkatu dela.

Alkateak, de Potestad jnk., erantzun du Lindusko baso-landaketa hersteke aukera aztertu zuela Izko ingeniariarekin, burdin-hesi zaharreko posteak kendu ondoren hari elektrikoa jartzeko, ehiztariek arazoak dituztelako hiltzen dituzten animaliak aurkitzeko.

Udal ibilgailuaren errotulazioa

Dufur zinegotziak dio eskualdeko gainerako udalen antzera udal ibilgailuan armarria jarri beharko liratekeela eta Gaztelu zinegotzia horretaz arduratuko dela dio, gainerako udalkideak ados daudela.

Helbide elektronikoaren zerrenda

Karrika Narbaitz zinegotziak jakinarazi du gaur gertatu den ur-mozketa bezalako beste batzuetan bizilagunen helbide elektronikoak jasota edukitzea komeni dela, bandoak modu telematikoan bidaltzeko. Bere ustez hori bandoak paperean bidaltzearekin bateragarria da eta modu azkarragoan informazioa igorri ahal zio helbide elektronikoaren ematen duenari

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

9.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Ez dira egin.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 18:30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.